

INPOSIZIOAREN AURKA; IKURRIÑA GUREA

2011ko azaroan Gobernu Delegatuak Lezoko Udalarari 39/1981eko legeak xedatutakoa betetzea agindu zion: Espainiako bandera udaletxearen balkoian jartzea.

Prozedura judizialak aurrera jarraitu du, aginduaren ondoren errekerimendu, auzi-eskea eta, azkenik, epaiaren forma hartu arte. 2012ko azaroan, epai horren kontra helegitea tarteratu zuen Lezoko Udalak eta Auzitegi Nagusiak azken epaia 2013ko azaroaren 29an eman zuen.

Espainiako Gobernuak lezoar gehienak ordezkatzan ez dituen ikurra inposatu nahi digu eta halabeharrez, gure sentimendu eta nahien kontra, etorri berri den epaia, bete beharrean aurkitzen gara.

Honengatik guztiagatik, mozio hau aurkezten dugu Udal Batzarrean onartua izan dadin:

1. Lezoar gehien sentimenduen kontra espainiar bandera ezartzera derrigortzen gaituen legearen inposizioa salatu nahi du Lezoko Udalak eta bere erabateko desadostasuna adierazi.
2. Inposatzen zaigun banderak ez du inoiz herri hau ordezkatu; ez lehen eta ez orain. Espainiako bandera zigor mehatxupear ezarritako sinbologia izango da gure erakundean.
3. Herritar gehien nahiaren aurka eta bere ordezkarien erabakimenaren kontra ezartzen den sinbologia izanda, neurri hau lezoarren borondatearekiko errespetu falta da, baita askatasunez erabakitze eskubidearen ukapena ere.
4. Ikurrinak merezi duen presentzia izan dezan Udaletxearen inguruan, herriko plazan modu iraunkorrean egongo den masta eta ikurrina jarriko ditu Udalak.

Lezon, 2014ko martxoan